

erdiko kaiera

SUSA

Literatura

Urtea hil aurretik Zarautzetik pasa behar genuen, Susaren bulegotik. Arrazoia, ezaguna: 25 urte bete ditu aurtan argialetxeak. Ez dute ospakizun berezirik antolatu, hitzaldiren bat edo beste, prentsan azaldu den artikuluren bat. Lotsatiak? Ez zaigu iruditzen. Ahobizarrik gabe aritu dira Gorka Arrese eta Josu Landa Susako kideak, kazetariarekin gaizki portatu den grabagailu baten aurrean.



Argazki historiko bat: Josu Landa (ezkerrean), Iñigo Aranbarri eta Gorka Arrese (bizkarrez). Susak bere historian izan dituen hiru editoreak dira.

Literatura bizi daiteke diferente

GORKA BEREZIARTUA

1983. PUNK TALDEREN BATEK “polizia ez!” oihukatuko zuen eta bi idazle argialetxe batetik atera ziren “poesia ez!” entzun ondotik. Diferenteak ziren, noski, ezezko bata eta bestea. Xabier Montoiak eta Josu Landak argitaratuta ikusi nahi zituzten beraien poemak. Garaiko *intelligentsiak* berriz, esaten zuen euskal literaturak ipuinak behar zituela, narratiban bidea egiteko. Gauzak horrela, ez zegoen korronteari buru egingo zion erabakia hartzea beste biderik: argialetxe bat sortzea; eta, bai, poesia *ere* argitaratzea. Montoiaren *Anfeta-miña* izan zen Susak publikatu zuen lehenengo liburua. Ordurako literaturaren

bideetan urteak zeramatzan Susa aldizkariak, baita hango kide askok prentsaren alorrean ere, ARGIArekin sinbiosian. Urteak halakoak ziren: eferbeszenteak. Horregatik, argialetxea sortzeko ideiak ez zuen irakinaldi luzeegirik izan. Eltze bakarrean prestatu zituzten aurreneko liburuak. “Editorial handi, edo estandar baten kontzeptua ez daukak buruan. Orduan, sail berean atera zituzten poesia, ipuinak... eta horrela bilduma bat egiten hasi” azaldu du Gorka Arresek, hasierako urteak gogoan.

35 bat liburu, horra aurreneko urteetako tiradizoak emandako fruitua. Tartean liburu garrantzitsuak. Batzuk aipatzearen,



Itxaro Bordaren *Basilika*, Mikel Antzaren *Lehen bilduma 82-84*, Iñaki Zabaletaren *110. streeteko geltokia* edo Laura Mintegiren lehen nobela, *Bai... baina ez*. Kopurua hazten zihoan, eta antolamendua premia bihurtzen. “Beste fundamentu bat behar du honek” esan zuen 1987an Josu Landak. “Poesia”, “Narratiba” eta “Erreferentziak” bildumak sortu zituzten, azkenekoa atzerriko literatur lanen itzulpenerako. Landak gogoratzen duenez, Koldo Izagirre ordurako beraiekin batera ari zen lanean. Arrese ere orduantxe hurbildu zen Susara. Ondorengo urteek ikusiko zuten proiektua sendotzen.

Kontestatarioak?

– Esan egia, hasieran oso jarrera kontestatarioarekin hasi zineten, eta urteekin formaldu egin zarte...

– Zahartu egin gara –dio Josu Landak barre artean. Galderak bromatik zuena alde batera utzita Susa bereizten duten ezaugarriez jardun dugu elkarrizketaren zatirik handienean. Bai Landak, bai Arresek, azpimarratu dute nolabaiteko literatura “inkonformista” publikatzea ez zela Susaren helburua. Trukean, beste ezaugarri batzuetan jarri dute letra larria: “Gainerako argitaletxe ia guztietatik bereizten gaituzten

1985ean Bilbon: Itxaro Borda, Mikel Antza, Josu Landa eta Eneko Olasagasti. Txomin Barullon bost liburu aurkeztu zituztenean ateratako argazkia.

Egile eskubideen inguruko filosofian diferente sentitzen dira Susako kideak beste argitaletxeen aldean. Idazle batek liburua Susan publikatzean, eurek edizio bat egiteko eskubidea bakarrik hartzen dute

ezaugarriak ditugu. Adibidez, euskara hutsez publikatzea, eta helduen literatura bakarrik. Susa ez da sartu liburugintzaren industrializatzeko prozesuarekin eta ustezko dibertsifikazioarekin saldu nahi izan den bidean: ustezko haur literatura publikatzea, beste hizkuntzetan publikatzea, testu liburuak egitea... eta abar”.

Egile eskubideak, argitalpengintza eta literaturgintza

Egile eskubideen inguruko filosofian ere diferente sentitzen dira besteen aldean. Idazle batek liburua Susan argitaratu nahi badu, argitaletxeak edizio bat egiteko eskubidea bakarrik hartzen du bere gain. Arresek eta Landak diotenez, argitaletxe ia guztiak eskubide horietaz jabetzen dira hainbat urtez, baita liburuaren itzulpena egitekoetaz ere. “Nik horri deitzen diot egile eskubideak bahitzea” dio Landak.

Desberdintasun horiek argitaletxea “homologagarria” ez izatea dakarte, beraien esanetan: jorنال eta erdi bakarrik mantendu dezakeen enpresa da, eta, aldiz, ingurune zabal eta aktiboa duena. Kulturgintzari buruzko jarrera eta ikuspegia partekatzen dute Susaren ingurukoek, eta bat datoz ikuspegi hori gauzatzeko produkzio bideen antolamenduan. Baina hortik aurrera, bakoitzak nahi duen erako literatura lantzen du. “Errazegi

nahasten dira argitalpengintza eta literaturgintza –Landa da hizketan ari dena–. Ateratzen denean eztabaida bat ustez literatura-rekin zerikusia daukana, benetan, oso gutxitan dauka zerikusia literatura-rekin: liburugintzaren negoziorekin izaten du”. Elkarrizketak aurrera egin ahala, nabarmenagoa da beraien interesgune nagusia ez dagoela alor horretan. Orduan azaldu dute Susa ez dagoela Euskal Editoreen Elkartearen; duela lauzpabost urte atera ziren handik, Landak dioenez, elkarte hori –“normala den bezala”– liburugintzara emana dagoelako.

Ikuspegi diferentzia horiek ordea, ez dira plano teorikoan geratzen: argitaletxe eredu diferenteak sortzen dira, baita, batzuetan, eredu batzuen eta beste arteko frikzioak ere, desberdintasunak diru-laguntzen alorrean ekartzen badira, adibidez. Gai horrekin lotuta, Josu Landak susmo bat plazaratu du: liburugintzako diru-laguntzak banatzeko irizpideetan aldaketak iragartzen ari dira, eta, bere ustez, aldaketa horiek egitura handiak indartzeko balioko dute. “Susmoa daukagu, ondorioetako bat gurea bezalako argitaletxe txikiak itotzea izango dela, esana baitago horrelako egiturak kaltega-

rriak direla euskal kulturarentzat, atomizazioa bultzatzen dutelako”.

Durangorekin desenkantatuta

Aurten Susak bi stand gutxiago jarri ditu Durangoko Azokan. Horretaz galdetuta ez diote garrantzi berezirik eman: urteen poderioz argitaletxeko lagun batzuek –ez denek–

bizi izan duten desengainatze prozesuarekin lotua dago. Gorka Arreseren ustez azoka edukiz hustu da, literaturaren ikuspuntu-tik begiratuta. “Beste Herri Urrats bat edo beste Korrika bat... –gehitu du Landak–. Soziolinguistika aldetik oso interesgarria izan daiteke, baina... Geroz eta ilusio gutxiago egiten digu joateak. Eta gainera, joateagatik kobratzen ez dugunez, ezta standean egoten direnek ere... Edo borondatea dago edo... edo ez dago”.

Eta ez zegoenez, ahaleginak beste esparru batzuetan jartzea hobetsi dute. Sarreran esaten genuen moduan, ospakizun berezirik antolatu gabe bukatuko da Susak mende laurden bete duen urte hau. Ospatu, beraiek dakiten moduan egin dute: liburuak publikatzen. Azkena, oraingoz, Susa aldizkarian argitaratutako ipuinak biltzen dituen *Aspaldiko lagunen bisita*. Datorren urtean, gehiago. ■

Aldaketak iragartzen ari dira liburugintzako diru-laguntzak emateko irizpideetan, eta Susako kideek susmoa dute horrek euren argitaletxea itotzea ekar dezakeela



Sutagar
20 URTE

20. URTEBETETZE
OSPAKIZUN DIRA

ABENDUAK 26 DURANGO PLATERUENA
gaueko 22:00etan [kontzertu hau zuzenean ikusteko aukera www.sutagar.com helbidean]

URTARRILAK 5 DONOSTIA ROCKSTAR
gaueko 22:30etan

BI KONTZERTU HAUETAN
SARRERAREKIN
SU TA GAR 1987-89
CD BAT OPARI

kontratazioa: 619 11 69 74
sutagar.com